


alava  
turismo.  
eus

# FAMILIA TURISMOA



visit  
araba  alava

# araba alava


## FAMILIA TURISMOA



Lurralde honek, txikia izan arren, kontraste ugari ditu paisaia aldetik. Era berean, eskaintza zabala du turismo baliabideei dagokienez. Horrek helmuga desberdina eta dibertigarria egiten du familia osoarentzat.

Ibilaldian euskal nortasunaren, folklorearen, artisautzaren eta ezaguna den gastronomiaren xehetasunak ikus ditzakezue, edo, bestela, historia museoak edo museo garaikideak bisitatuz, herri honetako historian koka zaitezke.

Edertasun handiko parke naturaletan barna mendi ibilaldiak egin ditzakezue, edo bide berdeetan zehar bizikletaz ibili; gera zaitezte hegaztiak ikustera edo har ezazue bainu bat uren kalitatearengatik bandera urdina duten barne hondartzetan.




Ezin hobeto kontserbatutako trikuharriak, Erdi Aroko harresiak, arte balio handiko elizak, eraikin neoklasikoak edo modernoak... Ondare aparta ikusiko duzue eta haren balio eta dibertsitate historikoak txundituta utziko zaituztete.

Baina badago gehiago oraindik, Araban jai eta ospakizun asko baitaude, nortasun propioak eta dibertsio ukaezinekoak. Kontsultatu zure agendan eta joan zaitez haietako batera, anima zaitez parte hartzera.

Oso abegikorrek gara, ikusiko duzue...



# 7 Kuadrillak





**Ayala / Aiara**

Delikako arroila  
Nerbioi ibaiaren behatokia eta ur jauzia  
Gorobel  
Gokomendi –Kuxkumendi parkea  
Ibilaldia Txakolinaren  
mahastietan zehar  
Baso solidarioa

**Añana**

Valderejoko parke naturala  
Donejakue Bidea familian  
Santa Katalina lorategi botanikoa  
**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**

Izkiko parke naturala  
Bide berdeak  
Entzia mendilerroa  
Toloñoko edo Kantabriako mendilerroa  
Lokizko mendilerroa  
Igoroingo amildegia  
**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**

Txangoak bizikletaz edo oinez  
mahastietan zehar  
Bizipen bat mahastietan  
Povedako parkea  
**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**  
Altzaniako mendiak  
Entziako mendilerroa  
Mendixurko parke ornitologikoa  
**Gorbeialdea**

Gorbeiaiko parke naturala  
Goiuriko ur jauzia  
Urkiolako parke naturala  
Oroko santutegia  
**Vitoria-Gasteiz**  
Eraztun Berdea  
Ataria  
Floridatik Armentiarra  
Ibilaldiak trizikloan, gidariarekin

Salburua

Helmuga turistiko gisa Araban  
pentsatzea, naturan eta  
berdeguneetan pentsatzea  
da, zalantzarik gabe. Gure  
lurraldean dauden hainbat  
mendik naturaz inguratutako  
eguna pasaraziko dizue, hala  
nola, **Entziako mendilerroak,  
Gorobelek edo Altzaniako  
mendiek.**

Zuena

**BERDEA** bada

Film batean sartuta bazeundete bezala sentitu nahi baduzue, dekoratu ezin hobeak dira parke naturalak. **Valderejokoan** ezin duzue galdu Puron ibaiaren haitzartea, **Izkikoa** ezin hobe da bizikletaz edo zaldiz txangoak egiteko, **Gorbeiaikoan** Gorbeia mendia duzue, 1.482 metrokoa, Arabako altuena, eta, azkenik **Urkiolakoan** eta **Aizkorri-Aratzekoan**, oso ondo kontserbatutako fauna eta flora autoktonoa aurki dezakezue. Beste txango interesgarri bat da Murgitik edo Bitorianotik **Oroko Ama Birjinarengana** igotzea, han haranaren bista ikaragarriak dituzue zain.

**Santa Katalina** lorategi botaniko eder bat da. **Goiuriko ur jauzia** edo **Delikako arroila** ikusi beharreko tokiak dira. Guztiz gomendagarria da familia picnic bat egitea leku horietako batean.

**Arabako Mendialdeko bide berdeak, Txakoli mahastien** artean paseoan ibiltzea edo **Donejakue Bidearen** zati bat familian egitea oso esperientzia erakargarriak eta errazak dira guztientzat. Alternatiba gisa, **Arabako Errioxak** guztiz bestelako bistak dituzten ibilbideak eskaintzen dizkizu, mahasti ezagunen edo upeltegi klasiko edo arkitektura ikusgarriko upeltegien artean bizikletaz edo oinez egitekoak.

Hiria nahiago baduzue, Gasteizen konbinazio ezin hobe duzue: **Florida parkean** edo **Armentiako parkean** landarediz betetako inguru batean atseden hartu edo paseoan ibili zaitezketelako.



Florida



Delika



Valderejo

Gainera, hiriaren inguruan **Eraztun Berdea** duzue, hiriko parkeak lotzen dituen ibilbide periferiko bat.


Horren barruan **Salburuko** parkea dago, flora eta fauna kontserbatzeko parke handi bat. Han, Gasteiz inguruan ibilaldi bat egiten duzuen bitartean, aukera izango duzue animaliak aire zabaLEAN ikusteko, hala nola, hegaziak eta oreinak.

**KONTUAN  
IZAN**



Hegaziak gustukoak badituzue, ez dago hoberik Uribarri Ganboako urtegiko hegoaldean dagoen Mendixurko parke ornitologikora joatea baino.

Bestela, Atariara (Salburua) joan zaitezkete, han behar bezala prestatutako behatoki bat eta parkeko hezeguneen interpretazio zentro bat baitituzue.



Ataria



Izki



**Ayala / Aiara**

Maroñoko urtegia  
Nerbioi ibaiaren sorburua

**Añana**

Linares ibai parkea  
Berantevillan  
Caicedo Yusoko aintzira  
Añanako Gatz Harana  
Zanbranako ur ibilbidea

**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**

Zumalde parkea Maeztun  
Fresnedo Santikurutze Kanpezun

**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**

Guardiako aintzirak  
Jarduerak Ebro ibaian  
Wine Oil Spa Guardian

**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**


Garaioko hondartzak

**Gorbeialdea**

Legutioko urtegia  
Zabalain aisiarako gunea,  
Legution  
Uribarri Ganboako urtegia  
Goiuriko ur jauzia

**Vitoria-Gasteiz**

Gamarrako ur parkea  
Mendizorrotzeko ur parkea  
Izotz pista



Uribarri Ganboako urtegia

Arabakez du itsasorik, baina berebizikoa da bertako ur gezaren aberastasuna. Bertako urtegi naturalak, gu hornitzeaz gain, jostaketa leku ere badira. Hona urtegi horietako batzuk: **Maroñoko**, **Legutioko**, **Uribarri Ganboako** edo **Zabalaingoak**. Badugu hondartza bat ere, **Garaio** hondartza, baina hori bai, ur geza du.

Zuena  
**URA** bada

baietan ere har dezakezu bainu bat. Horrez gain, Arabako Mendialdeko **Zumalde** edo **Fresnedo** ibai igerilekuek atsedenguneak dituzte, bai eta taberna-jantoki bat ere. Hor dituzue Berantevillako **Linares** zona edo Izarrako **Ostuño**.

Eta hala eta guztiz ere, nahiago baduzu igerileku bat segurtasun osoz uraz gozatzeko, txirristan behera joateko eta bertako kirol instalazioetan jolasteko, Gasteizen badituzu **Gamarra** eta **Mendizorrotzeko** igerileku jostagarriak.



kayakean Ebro ibaian zehar

Ura ondasun estimatua da bere fase guztietan, eta izotzak ere badu aisiarako tarte bat **Gasteizko izotz pistan**. Han, abiadura senti dezakezue eta benetako irristalariak sentitu.

Zanbranako **Inglases ibaiko ur ibilbidea** ere oso interesgarria da, mendi ibilaldiak egitea eta ibaiko faunaren ezagutza bateratzen baititu. **Ebro ibaian zehar kayakean** osteratxo bat eman dezakezu Lapuebla de Labarcatik hasita. Ondoren, zer hobeto **Guardiako Wine Oil Spa bainuetxean zirkuitu** bat egitea baino.



Garaio



Uribarri Ganboa

Ur kirolak gustuko badituzu, zorioneko zaude, **Urrunagako** urtegian arraunketan, windsurfean, bela arinean eta kirol arrantzan ibil zaitezkeelako; **Albinakoa**, ezin hobea da piraguan ibiltzeko, eta **Uribarri Ganboakoa**, berriz, kayakean, ur eskian eta belan jarduteko.



Mendizorrotza

**KONTUAN  
IZAN**



Arabak ez du itsasorik, baina bai ur kalitate bikaineko hondartzak eta instalazio ezin hobekak.

Garaioko hegoaldeko eta Garaio iparraldeko eta Landako hondartzek munduan dauden barnealdeko hondartzarik onenen artean daudela egiaztatzen duen saria lortu dute. Horregatikikusiko duzu bandera urdinak daudela ur ertzean.





**Ayala / Aiara**

Kexaako monumentu multzoa  
Artziniegako Arteko Andra  
Mariaren monumentu multzoa  
eta santutegia  
Artziniegako Etnografia museoa

**Añana**

Gaubeako kobazulo eremutarrak  
Orgaz-Fontecha dorre-jauregia  
Zabalateko gaztelua  
Iruña Veleiako aztarnategi  
erromatarrek  
Varonatarren dorrea

**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**

Urizarharreko harresia  
Antoñanako multzo historikoa  
Pipaongo museoa

**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**

Guardiako eta Labrazako  
hiribildu harresidunak  
Trikuharrien ibilbidea  
Haitzuloak  
La Hoya-ko museoa  
Moredako Santa Maria  
Guardiako urmael zeltiberiarra

**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**

Sorginetxe trikuharria  
San Adriango galtzada  
Egilazko trikuharria  
Aizkoramendi trikuharria  
Zalduondoko jauregia

**Goibeialdea**

Irubidaur etnografia museoa  
Urkabustaiz eta Zigoitiko  
multzo erromanikoa  
Parketxea (Sarria)  
**Vitoria-Gasteiz**  
Santa Maria Katedrala  
Katedral Berria  
Erdi Aroko Almendra  
Bi Bat Arkeologia eta Karta Museoa  
Arma Museoa

# HISTORIA

ezagutzeko jakin-mina baduzu

Ohoré bat da gizateriaren historian zehar ibiltzea Araba bezalako lurralde txiki batean. Trikuharriak, monumentu megalitikoak, harresiak, jauregiak eta gazteluak, eta Erdi Aroko eta Errenazimenduko katedralak eta eraikuntzak. Horiek guztiak, ondo zaindutako eraikinetan eta arkeologia bilduma garrantzitsuak dituzten museoetan.

Santa Maria Katedrala  
Vitoria-Gasteizen

Murgil zaitez historian Arabako edozein herritan ibiliz, txikiak izan arren, benetako altxorak dituzte eta.

Historiaurretik hasita, ez dituzu galdu behar **Sorginetxe** (Agurain) eta **La Hechicera** (Bilar) **trikuharriak**, 5.000 urtetik gorakoak. Arabako Errioxa inguruan monumentu megalitikoak aurki ditzakezue, hala nola, **Layaza**, **el Sotillo edo el Alto de la Huesera**. Eta oraindik jakin mina baduzue, Guardiako **La Hoya-ko Museora** joan zaitezke, Brontze eta Burdin Aroaren artean gizakiak bizi ziren arkeologia aztarna bat. Museo interesgarri bat ere badu.



Labrazako bisitaldi antzektuak

Arabako Errioxatik irten gabe, polit-politak eta interesgarriak dira Guardia, Gatzaga Buradon eta Labraza, ondo zaindutako **harresiak** dituztelako. Urizarharreko harresia ere ondo zainduta dago eta Gasteizera itzultzean ikus dezakezue. Herri horretan, **katedral zaharraz** gain **Erdi Aroko hirigune** bat duzue, trazadura ederrekoa, bertan zeuden lanbide zaharren izenak gordetzen dituzten kaleekin (Hedegilea, Errementaria...)



La Hechiceraren txabola



Kexaa

Bisitaldia Arkeologia eta Kartak biltzen dituen **Bibat** museora. Korazak eta ezpatak gustuko badituzue, egin bisitaldia **Arma** museora.



Probintzian ez galdu **Kexaako** edo **Antoñanako monumentu multzoa**. Eta historia hurbiletik ezagutzeko, leku ona duzue Artziniegako **museo etnografikoa**.

**KONTUAN  
IZAN**




Santa Maria Katedral Zaharra segurtasun kasko bat jantzita bisitatuko duzu, gidariak pasabide eta aldamiotatik eramango zaituztelako Gasteiz (garai bateko izena) hiriaren historia kontatzen dizuten bitartean. Dotoreak dira dorretik dauden bistak, besteak beste, Erdi Aroko hirigunearen zein hiriaren mugenak.





**Ayala / Aiara**  
Zaldi txangoak  
Hegaldia globoan  
Espeleologia Gorobelen  
**Añana**  
Izugarrizko abentura Segway-n  
Tuestako zoologikoa  
Abentura Sobronen  
Angostoko BTT zentroa  
Txangoak globoan  
Añana zaldian  
Sobrongo via ferrata  
**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**  
Golfa Urturin  
Markizko kobazuloa  
Kanpezuko Nusi arrantzarako lakua  
BTT zentroa  
Bernedoko Nordic Walking Zentroa  
Santikurutz Kanpezu eta Maeztu  
**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**  
Guardiako aintzirak  
Jarduerak Ebro ibaian  
Ibilaldiak segway-n  
**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**  
Cueva de la Leze  
Hípica Salvatierra  
**Gorbeialdea**  
Lezeko kobazuloa  
Agurain hipika  
Gorbeialdea  
Izarrako Ostuño parkea  
Picnic-a kayakean Uribarri Ganboan  
Drukuren mundua  
Izarra hipika  
Oletako abentura parkea  
Larrabea, Izki eta Zuia Golf  
**Vitoria-Gasteiz**  
Gasteiztxo turismo tren  
Ibilaldiak trizikoan, gidariarekin  
Akua pirata. Galeoi parkea  
Turismo ibilbideak famientzat



Ibilaldiak zaldiz

Abenturazaleak bazarete, huts egin ezin duzun jomuga da Araba. Asko dira familientzat zuzendu diren jarduerak eta baliabideak, lehen mailako inguruez eta jarduera harrigarri eta oso didaktikoez gozatzeko.

# ABENTURAREN zale amorratuak bazarete

**M**artxan jarriko gara badugulako bide asko egiteko eta leku asko aurkitzeko. Bizikleta hautatzen baduzue, bi **BTT zentro** daude bi ibilbide ezberdin ezagutzeko: bata, Valderejo/Añana eta, bestea, Izki/Arabako Mendialdea. Azken horretan, gainera, vasco-navarro trenak garai batean zeharkatzen zuen **bide berdea** har dezakezu.

Ibilbide garrantzitsuenetako bat **GR-38** duzu, Ardoaren eta arrainaren ibilbidea, Arabako Errioxa eta euskal kostaldea lotzen duelako.



Añana

Beste aukera dibertigarri bat da Aiara, Arabako Lautada eta Añanako kuadrilletan **zaldi txangoak** egitea. Berriagoak dira Añanan segway-n egin ditzakezun paseoak.

**Espeleologia** gustuko baduzue, Gorobelera joan zaitezke, eta Agurainen La Leze haitzuloa edo Arabako Mendialdean kobazulo eremutar artifizialak edo Gobak bisitatu ditzakezue. Era berean, badaude abentura zentroak, hala nola, **Sobrongoa**, hainbat jarduera egiteko, arrantzan aritu zaitezke Kanpezuko **Nusi arrantza lakuan**, edo, gustukoa baduzu, **golfean** ibil zaitezke Izkin edo Larrabeen; horiez gain, hor duzu **Oletan zuhaitzen gainean ibiltzeko abentura parkea**, aire zabalean egiteko hainbat jarduera eskaintzen dizkizuna.



Sobrón




Oleta



Leze

Zuen bidaia Gasteizko hiritik atera gabe egitekoa bada, joan zaitezte **Galeoi parkera**, Akua pirata itsasontzia duena, edo, bestela, igo **Gasteiztxo trenera**, hiriaren erdialdearen ikuspegi bat izateko.

## KONTUAN IZAN



Ibilbide Berdeak trenak igarotzen zituen garai bateko bideak dira, egun mendi ibilaldiak egiteko eta, batez ere, mendiko bizikletaz egiteko bide zidor bihurtuak.

Probintzian dauden ibilbideez informazioa jaso dezakezu, eta horietan barna ibili zaitezke kirola egiten duzun bitartean. Horrela, paisaiaren ikuspegi erabat berezia izango duzu tunel eta zuhaitzi artean ibilita.





### Ayala / Aiara

Aresketamendi (Energia Berriztagarrien Parkea)  
Santxotena tailer/museoa

### Añana

Tuestako atari erromanikoa

### Laguardia-Rioja Alavesa / Guardia-Arabako Errioxa

Abangoardiako arkitektura  
upeltegietan  
Moredako Santa María  
Remelluri basetxe museoa  
4D esperientzia  
“Ametsetak lurtean”

### Llanada Alavesa / Arabako Lautada

Alaitzako eta Gazeoko horma  
pinturak

### Gorbeialdea


Ollerietako Buztingintza Museoa

### Vitoria-Gasteiz

Muralismo publikoa  
Artium  
Arte Ederren Museoa

Murala  
Vitoria-Gasteizen

# ARTISTAK bazarete



Historian zehar, herri honek zaletasuna erakutsi du arte adierazpen guztietan.

Horrela, bada, esku-eskura dituzue muralismo publikoaren adierazpenak edo hainbat museo.

Lurralde honetako arte ondarea oparoa da, **Gazeo eta Alaitzako pintura gotikoetatik** –horiek edertasun handiko barne horma pintura bikainak dira– ezagutza handiena duen arte garaikideraino hedatzen dena.

Pintura gustukoa baduzue, idatzi zuen agendan Gasteizko **Arte Ederren Museora** bisita egin behar duzuela. Museo horretan eskal margolarien XIX. eta XX. mendeko margolan bikainak daude, hala nola, Zuloaga, Maestu, Amárica edo Díaz de Olanorenak. Arte garaikideari dagokionez, **Artium** museoak lehen mailako artisten funts aparta du, adibidez, Dalí, Picasso, Miró, Saura edo Tapies, edo Chillida, Oteiza edo Nagel euskaldunenak. Bi museo horiek haurrentzako jarduerak antolatzen dituzte; kontsultatu egitaraua.

Eskaintza oraindik ere zabalagoa da; izan ere, **Ollerietan Euskal Zeramikaren museoa** dago eta bertako lantegietan parte har dezakezue. **Santxotena**ren lantegi-museoko eskulturak, Artziniegan.



Elciego



Gazeo

Ardoaren mundua ezagutu nahi baduzue, hurbildu Arabako Errioxara. Hobeto ezagutuko duzue **Remelluriko museo-basetxera** haitzuloetan egindako dolareak daude bertan edo Guardiako **Ardoaren Zentro Tematikora** joanez; ahal baduzue, joan zaitezte azken leku horretako “Ametsetak lurtean” **4D zentzumen esperientziara**. Arabako Errioxatik mugitu gabe, ikus itzazue Frank Gerhy, Calatrava edo Mézières arkitekto ezagunek sinatutako **upeltegi modernoak**.



Artium



## KONTUAN IZAN

Badago era bitxi bat Gasteizko hirian ibiltzeko, Erdi Aroko hiriguneko eta Zaramaga auzoko fatxadak kolorez betetzen dituzten muraletara bisita eginda. Boluntarioek eginak dira, eta mural horietako bakoitzak lurralde honen bizitzako egoerak, aldarrikapenak edo une historikoak islatzen ditu. Bikainak benetan!





**Ayala / Aiara**

Bisitaldia txakolin upeltegerara  
Bisitaldia gaztandegietara  
Barraskiloak, odolkiak,  
erroskilak eta etxeko ogia

**Añana**

Añanako gazta ezkatatan

**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**

Antoñanako Eztiaren Feria

**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**

Bisitaldia upeltegera  
Lantegi enogastronomikoak  
Olio errotak  
Remelluri basetxe-museoa  
Racimo tren  
Ardogintza eta oliogintza

**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**

Gazta egiteko lantegiak

**Gorbeialdea**

Bisitaldiak gaztandegietara  
Eztiaren museoa  
Gorbeian artzain egun batez

**Vitoria-Gasteiz**

Tradiziozko gozokiak  
Azoka plaza  
Sukaldaritzaren lantegi eta  
ikastaroak

Gogoratu gastronomia giltza dela orain zaudeten lurraldea ondo ezagutzeko.

Produktuen kalitateak, sukaldean izandako tradizioak eta nazioartean ezaguna den abangoardiako sukaldaritzak benetako gozamen bihurtzen dute gastronomia.

Gozoa ala gazia erabaki baino ez duzue egin behar.

Gozoa edo  
**GAZIA**  
nahiago baduzue

Gatz Harana

Araba ezaguna da dituen nekazaritza eta abeltzaintzako lehen mailako produktuentzat, eta horiek gutizia gozoak bihurtzen dira adituen eskuetan utziz gero.

Agurain eta Kanpezu eta Añana aldean, **patata** ezin hobea landatzen da. Arabako Errioxara joanez gero, ez galdu hain gozoak diren patatak txorizoarekin edo patatak errioxar erara. Neguko beste plater bat **baba pikarta** da, Eusko Label kalitate zigituduna.



Gazta

Gatza da edozein platerarako funtsezko produktua eta Araban **Añanako Gatz Harana** dugu. Han egun zaharberriarik dauden antzinako gatz larrainak bisitatu ditzakezue eta familian egiteko eskainiko dizkizuen hainbat jardueraz gozatu. Gatza bezala, olio ere ezinbestekoa da sukaldean: Arabako Errioxakoa, lehen mailako **olio** birjina estra du-

zue, bertokoa den Arroniz oliba barietatekoa.

Eta postreerako, **Idiazabal gazta** apur bat proposatzen dizuegu, Euskadiko eta Nafarroako barietate eksklusiboa, ardi latxaren edo Karrantzako ardiaren esnearekin egina. Edozein momentu eztinguzko, zer hobeto Gorbeialdeko edo Arabako Mendialeko **eztia** baino; gainera, gai horri buruzko museo bat duzu Murgian



Txakolina




(Gorbeialdea), eta **artzaina** edo **erlezaina izan zaitezke egun batez** Gorbeia Central Parkean. Horrez gain, Arabako eta, bereziki, Gasteizko gozotegiek ospe handia dute. Proba itzazu **txokolatezko trufak**, paregabeak benetan.

Nagusientzat ezinbestekoa izango da nazioartean hain ospe handia duten **Arabako Errioxako ardoak** edo **Airaldeko txakolinak** dastatzea. Eta txikiengentzat, bi eskualdeetan hainbat jarduera eta zentro tematiko daude ardo bikain horiez gehiago jakiteko. Arabako Errioxan, igo zaitezte **Racimo trenera**, inguru hori ezagutzeko era dibertigarri bat duzue-eta.



Mahatsa zapaltzen

**KONTUAN  
IZAN**



Batez ere probintziako patroien jaietan, San Prudentzio egunean (apirilaren 28a), perretxiko nahaskia (onddo fin-finak) eta barraskiloak saltsa gozo-gozozan jaten dira. Proba itzazue aukera izanez gero, jaki ona dira-eta. Galdu ezin duzuen postre tipiko bat Goxua da, hemengo, edo San Prudentzio edo Andre Maria Zuriaren tarta.





**Ayala / Aiara**

Jai herrikoiak

**Añana**

Angostoko erromeria  
Gatzaren azoka Gesaltza Añanan  
Ilargiaren jaia Santa Katalinako  
lorategi botanikoan

**Campezo-Montaña Alavesa /  
Kanpezu-Arabako Mendialdea**

Jai herrikoiak  
Kanpezuko San Martin azoka  
Bide Berdearen eguna Kanpezun

**Laguardia-Rioja Alavesa /  
Guardia-Arabako Errioxa**

Olioaren azoka  
Ardoaren azoka historikoa  
Lorearen eta baratzen azoka  
Elciegon  
Mahats bilketaren jaia  
Sorginkeriaren azoka Bilarren  
Guardiako jaiotza artikulatua  
eta Bastidako artzainak  
Gabonetan

**Llanada Alavesa /  
Arabako Lautada**

Araiako umore jaialdia  
Zalduondoko inauteriak


**Gorbeialdea**

Jai herrikoiak

**Vitoria-Gasteiz**

Magialdia  
Jazzaldia  
Herrietako jaiak  
Olarizuko eta Armentiako  
erromeria  
Jolas jaialdia  
Antzerki jaialdia  
Floridako jaiotza

Vitoria-Gasteizko jaiak



Eskualdeko jendea ezagutzeko era aparta da euren jaiak eta tradizioak partekatzea. Araba lurralde oso abegitsua da, eta hemen era berezi batean gozatzen dugu gure ohiturez, ospakizunez eta folkloreak.

Zuena

**JAIK**

badira

Asko dira lurralde honetan dauden jai herrikoiak. Horietako batzuk tradizioan oinarritzen dira eta jatorrizko eta berezko tipikotasunaren kolorea dute.

Neguan ezin duzue galdu Arabako Errioxako honako gabon ospakizunak: **Guardiako jaiotza artikulatua** eta **Bastidako artzainak**. Oso polita duzue **Gasteizko Florida parkeko jaiotza**, figurak benetako eskalan dituen.

Neguan, kultura tradizioko errotua dute **Zalduondoko Ihauteriak**.

Udan izaten da jai gehien. **Gasteizko jaiak** (abuzturren 4tik 9ra bitartean) oso ezagunak dira, eta denontzako plan ugariz beteta daude. Oso ospetsua da **Zeledon**, "zerutik jaisten" den panpina bat. Arabako **Errioxako Mahats Bilketaren Jaiak** hainbat lagun biltzen du irailean ardoaren inguruan.

Horiez gain, asko eta asko dira egutegia betetzen duten kultura adierazpenak, hala nola, Gasteizko **Jazzaldia** eta **Jolas Jaialdia** (uztaila), edo **Gasteizko Guduaren** antzeppen historikoa; **Araiako Umo-**



Jolas Jaialdia



Gasteizko Guduak


**re Jaialdia** (abuztua), Gasteizko **Magialdia** (iraila) edo Gasteizko **Antzerki** jaialdia (urritik azarora bitartean).

Oso interesgarriak dira, era berean, **nekazaritza eta abeltzaintza azokak** Kontsultatu zure bistaldiarekin bat egiten duten eta ezagutu itzazu.



Zalduondo

**KONTUAN  
IZAN**



Irudikatzen duzue hiri bat haur eta helduentzako jolasez beteta? Bada, horixe bihurtzen da Gasteiz ekainean.

Hogei jaialdi egin dira, eta horrek erakusten du zer arrakasta duen; neurri handiko jolasak edo mahai jokoak, aintzinaokoak zein egungoak, giro bikain batean.





# GALDU EZIN DITUZUN EXPERIENTZIAK Arabian



## PASEOA SLIDEBOTEAN MAHASTIEN ARTEAN

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 600 710  
Slidebot era jostagarri, eroso eta ekologiko batean hainbat bazter ezagutzeko aukera ematen dizun Segwy modalitate bat da. Imajinatu Arabako Errioxan mahastien artean zehar ibilbide bat egitea familiarekin.



## OLETAKO ABENTURA PARKEA

Informazioa eta erresebak: Tel. 633 468 947  
Aisialdirako aukerarik hoberena Gasteiztik 15 minutura baino ez. Zubi tibetarrak, Tarzanen lianak, arku tiroa Dena bertoko baso paregabe batean (haritzak, pagoak, gorostiak...), familientzat ezin hobea.



## "GASTEIZTXO" TURISMO TRENA

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 161 598  
Ibilbide turistiko labur bat hirian barna. Heldu eta haurrok primeran pasako duzue. Hiria era atsegin eta ulergarri batean ezagutuko duzue, eta magiaz beterik...



## ARTZAINA EGUN BATEZ

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 430 440  
Egun batez honelako esperientzia bizitzea: artzain batekin eta haren txakurrekin artalde bat gidatzea, gazta egitea eta Idiazabal gazta dastatzea.



## ERLEZAINA EGUN BATEZ

Informazioa eta erresebak: T. Tel. 945 430 440  
Ausartu zaitetz erlauntzaren barrualdera bidaia egiten erleen mundua ezagutzeko. Aho zabalik geratuko zara intsektu horien antolaketa, eztiaren produkzioa ... zein den jakitean.



## "AKUA" GALEOI PIRATA

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 161 598  
Benetako pirata zarela sentitu nahi baduzu, hor duzu zain Akua galeoi pirata parkea. 33 metro luze den itsasontzi bat Gasteizen, jolasez betetako leku batean.




## ABENTURA PARKEA SOBRORENEN

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 359 016  
Adrenalina gustukoa baduzu, ezin duzu galdu. Hainbat jarduerataz goza dezakezu, hala nola, tirolina, kayak edo SUP, paintball, eskaladaz, eta baita via ferrata ere.



## IBILALDIAK TRIZIKLOAN GIDARIAREKIN

Informazioa eta erresebak: Tel. 688 872 187  
Ibilaldiak trizikloan, gidariak lagunduta, era desberdin batean hiria eta Eratzun Berdearen parketako batzuk ezagutzeko. Bisitaldiak, nahi bezala.



## 4D ZENTZUMEN ESPERIENTZIA

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 600 032  
Tradizioa eta ikus-entzunezkoen azken teknologia konbinatzen dituen museogune bat, ardoaren historia eta erriualak era atsegin, praktiko eta eraginkorrean ezagutzeko.



## RACIMO TREN

Informazioa eta erresebak: Tel. 629 830 148  
Igo zaitetzte Racimo Tren maitagarri honetara. Mahasti eta upeltegien artean egindako ibilaldiaz, anekdotez, tradizioez, kondairez... goza dezakezue Arabako Errioxa sakonki ezagutzeko.



## KAYAKEAN EBRO IBAIAN ZEHAR

Informazioa eta erresebak: Tel. 646 588 525  
Gozatu ibaian zehar piraguan ibiltzeaz, Arabako Errioxako mahastien paisaia ikusgarriak ikusiaz. Alde horren berezko aberastasuna ezagutuko duzu kirola egiten duzun bitartean.



## WINE OIL SPA ARABAKO ERRIOXAN

Info eta erresebak: Tel. 945 600 532 /600 560  
Arabako Errioxako ardoan eta oliba olioan oinarritua, gorputza eta burua zaintzeko. Tratamendu horietako batzuk haurrekin egin daitezke, hala nola, txokolatzeko bilgarriak edo zirkuitu hidrotermalak.



## MAHATS BILKETA FAMILIAN

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 600 710  
Mahatsa biltzeko esperientzia paregabea Arabako Errioxan. Zu eta zure familiak prozesu guztia nolakoa den ikasiko duzue, mahatsa biltzen denetik hasita.




## OBRETAN ETA IREKITA

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 255 135  
Egin osteratxo bat Santa Maria katedralaren historian zehar kasko eta guzti! Erdi Aroko eraikin eta hiri baten sekretuak ezagutuko dituzu.



## DRUKUREN MUNDUA

Informazioa eta erresebak: Tel. 945 430 440  
Emozioz beteriko esperientzia bat familia guztientzat. Animalia familia bat izango da protagonista hezte saio harrigarri batean, eta, gainera, arku tiroan jarduteko aukera izango duzue.



## SALTWAY, ABENTURA APARTA SEGWAYAN GATZ HARANAN ZEHAR

Informazioa eta erresebak: Tel. 626 285 836  
Ibilbide xumeak Segwayan Gatz Haranan zehar, gatz larrainen paisaien ikuspegi apartaz gozatzeko.



## HEGALDIA GLOBOAN

Informazioa eta erresebak: Tel. 607 429 670  
Bizi ezazu esperientzia zoragarri bat Erdi Aroko Almendra eta Eratzun Berdea zerutik ikusita.



## SANTA KATALINA LORATEGI BOTANIKOA

Interpretaziogunea: Tel. 688 897 048  
Haurrei liluragarria irudituko zaie, maitagarrien ipuinetako basoak bezalakoak. Udan Ilargiaren jai magikoa ospatzen da, gau horretan leku horretako kondairez eta istorioez gozateko.



## ARABA TURISMOA

www.alavaturismo.eus

## EUSKADI TURISMOA

www.euskaditurismo.eus

## NEKATUR/NEKAZARITZATURISMOAK

943 327 090 · www.nekatur.net

### ARABAKO TURISMO BULEGOAK

#### AMURRIO

Alday kalea 1, beheka (La Casona eraikina).  
01470 Amurrio.

**945 393 704**

www.amurrio.org

e-maila: turismo@amurrio.org

#### ARTZINIEGA

Artziniegako Museoa  
Arteko aldapa, 12. 01474 Artziniega

**945 396 210**

www.alaraldea.org

e-maila: artziniegaturismo@gmail.com

#### KEXAA

Kexaako Monumentu Multzoa  
(Arte Sakratuaren Museoa). 01477 Kexaa

**945 399 414**

www.alaraldea.org

e-maila: turismo.ayala@gmail.com

#### ELCIEGO

Irakasleen etxea. Norte kalea, 26.  
01340 Elciego

**945 606 632**

www.elciego.es

e-maila: info@elciego.es

#### BASTIDA

Salazar Jauregia-Kultura Etxea  
Bakearen plaza, zk.g. 01330 Bastida

**945 331 015**

www.labastida-bastida.org

e-maila: turismolabastida@euskalnet.net

#### GUARDIA

Garcetas Etxea Kale Nagusia, 52  
01300 Guardia

**945 600 845**

www.laguardia-alava.com

e-maila: turismo@laguardia-alava.com

## ARABAKO LAUTADA

Kale Nagusia, 8. 01200 Salvatierra

**945 302 931**

www.arabakolautada.eus

e-maila: info@arabakolautada.eus

## GAUBEA

Jesus Guinea arkitektoa, 46  
01426 Uribarri Gaubea

**945 353 040**

www.valdegovia.com

e-maila: turismo@valdegovia.com

## GORBEIALDEA

Bea-Murgia plaza zk.g. 01130 Murgia

**945 430 440 / 945 430 167**

www.gorbeialdekokuadrilla.eus

e-maila: turismo@gorbeialdea.eus

## ARABAKO MENDIALDEA

Geltokiaren kalea, zk.g. 01128 Antoñana

**945 410 577 / 945 405 424**

www.montanaalavesa.com

e-maila: info@montanaalavesa.com

## VITORIA-GASTEIZ

Espainia plaza, 1. 01005 Vitoria-Gasteiz

**945 161 598**

www.vitoria-gasteiz.org/turismo

e-maila: turismo@vitoria-gasteiz.org

## AÑANA

Miguel Diaz de Tuestaren plaza zk.g. 01426  
Gesaltza Añana

**945 351 386**

www.ananaturismo.com

e-maila: oficinadeturismo@cuadrilladeanana.es

### NATURAGUNEAK

#### AIZKORRI-ARATZEKO PARKE NATURALA

646 478 812. www.alavaturismo.eus

#### GORBEIAKO PARKE NATURALA

945 430 709 · www.alavaturismo.eus

www.gorbeiacentralpark.com

#### IZKIKO PARKE NATURALA

945 410 502 · www.alavaturismo.eus

## URKIOLAKO PARKE NATURALA

946 814 155 · www.urkiola.net

## VALDEREJOKO PARKE NATURALA

945 353 146 · www.alavaturismo.eus

### BIRDING

#### BIRDING EUSKADI

www.birdingeskadi.com

### MENDI IBILALDIAK

#### MENDI IBILALDIAK EUSKADIN

www.senderismoeuskadi.net

#### DONEJAKUE BIDEA

www.euskaditurismo.eus

### BTT ETA BIDE BERDEAK

#### BTT EUSKADI

www.btteuskadi.net

#### IBILBIDE BERDEEN SAREA

www.araba.eus

### GARRAIOA

#### AIREPORTUA

945 163 500 · www.aena.es

#### TRENAK - Renfe

902 320 320. Geltoki plazatxoa zk.g.,  
Vitoria-Gasteiz. www.renfe.es

#### AUTOBUSAK

945 161 666. Vitoria-Gasteizko geltoki nagusia  
945 161 054. Vitoria-Gasteizko hiri autobusak  
www.vitoria-gasteiz.org/transporte

#### TRANBIA

945 135 554 · www.euskotren.eus

alava  
turismo.  
eus



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus